

Patxi Zabaletari
elkarrizketa
ETB2 katean

ETB-2 • 09:30ean

Iruñeko EHko zinegotzi Patxi Zabaleta elkarrizketatuko dute gaur goizean *El Punto...* saioan.



gaurko filmak Ane Muñoz

■ TRES DESEOS.

Lehenik eta behin ohartaraziko dizuet, batere atsegin ez dudan Patrick Swayze gatzik gabeak rol nagusia jokatzeko duela, Mary Elizabeth Mastrantonio erdipurdikoaren alboan. Ez deritzot oso bikote erakargarria, eta haien antzezpena ez da, inondik ere, nabarmentzekoa. Dena den, melodrama arina da eta nahikoa entretenigarria, egia esan. Bikote protagonistaren oraina ez ezik, iragana ere ezagutuko dugu, Martha Coolidge zuzendariak *flashback*-en bitartez erakutsia.

■ MI FAMILIA.

Gregory Navak, drama arin eta interesgarri hau Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuen, eta handik gutxira areto komertzialetan ikus ahal izan genuen; ez zuen arrakasta handirik izan, baina kuriozoso da eta gustura ikusten den horietakoa dela esango nuke. Esai Morales eta Edward James Olmos txikanoek rol nagusiak jokatzeko dituzte, hain zuzen txikanoen erkidegoaz mintzo den abenturan. Sendi bateko kideen istorioa kontatzen du, hiru atal ezberdinetan banatuta: 20ko hamarkadan girotutako lehen atalaren ondoren, 50eko hamarkadarantz eramango gaitu, 80ko hamarkadako eszenekin amaitzeko. Hirurak, sendi horren beraren inguruan garatzen dira.

■ CAÑONES PARA CORDOBA.

Mexikoko Iraultzan girotutako abentura entretenigarri honek ez dio ezer berririk gehitzen generoari, argumentu arrunta baitu abiapuntutzat, baina hala eta guztiz ere zuzena da, antzezle jatorrek protagonizatua dago eta gustura ikusten da. Paul Wendkosek ederki ezagutzen zituen halako abenturak eta ez zuen esfortzu handirik egin behar izan istorio txiki hau filmatzeko. Aur-

Johnny Depp, Newell britainiarraren
mafioso erakargarria

■ **DONNIE BRASCO.** Johnny Depp miresgarriak Donnie Brasco mafiazalearena egiten du Mike Newell (*Four Weddings and a Funeral*, 1994) britainiarraren zinta txiki baina onargarri honetan. Hain zuzen, plano nagusiak Depp protagonista erakargarriari gordetzen dizkio eta izar interesgarriak biltzen ditu haren inguruan. Ederki girotua dago eta, besteak beste, aktoreen lana nahikoa sinesgarria da.

Escándalo en la familia

1967, Julio Porter, 88 m. 11:00 La2

Amor y secuestro

1995, Bill L. Norton, 90 m. 16:15 T5

Cañones para Cordoba

1970, Paul Wendkos 17:20 ETB2

Excess Baggage

1998, Marco Brambilla, 95 m. 20:40 C+(f)

Donnie Brasco

1996, Mike Newell, 125 m. 20:55 F3

Tres deseos

1995, Marta Coolidge 22:00 ETB2

Jessie

1999, Raul Ruiz, 100 m., JBA. 22:20 C+(f)

Manos de seda

1997, Cesar Martinez Herrada, 97m. 22:45 C+(e)

Bound

1995, Larry & Andy Wachowski, 110m. 23:05 F2

Mi familia

1995, Gregory Nava, 121 m. 00:20 ETB2

Louis, enfant roi

1992, Roger Planchon, 160 m. 00:20 Arte

Capitan Fracassa

1960, Pierre Gaspard-Huit, 98 m. 02:00 La2

La camorra

1972, Pasquale Squitieri, 108 m. 03:40 La2

Pesadilla en Elm Street V

1989, Stephen Hopkins, 81 m. 04:15 A3

La violación de Richard Beck

1985, Karen Arthur, 91 m. 04:45 T5

♦ ♦ ♦ ♦ ♦
TXARRA ESKASA BALEKOA ONA BIKAINAGregory Nava zuzendariaren *Mi familia* filmeko irudi bat.

pegi ezagunak topatuko dituzue bertan: George Peppard, adibidez, rol nagusia antzeztu du. Espainian filmatu zuten,

genero bereko beste film ugari bezala, eta bertako aktoreak azaltzen dira, rol txikiak egin ez.

ETB 2

07:20: *Del pais de los vascos*. Salinas.07:45: *El otro Mexico*.08:05: *Palabra de ley*.08:40: *Dokumentala*. Cazadores de la oscuridad.09:30: *El Punto...* Gonbidatua: Patxi Zabaleta.10:00: *Forum*. Gonbidatua: Edurne Pasaban.10:30: *La cocina de Pedro Subijana*.10:45: *Boston*. Telesaila.11:05: *Luz de Luna*. Telesaila.11:55: *Remington Steele*. Telesaila.12:45: *Bonanza*. Telesaila.13:40 *Informativo territorial*. Albisteak.

14:00: ¡Mira, Mira!

14:28: *Teleberri*.15:30: *Lo que faltaba*. Txetxu Ugaldek eta Yolanda Alzolak aurkeztutako saioa.17:20: *Zinema*.**Cañones para Cordoba.**

Zuz.: Paul Wendkos. Akt.: George Peppard, Giovanna Ralli, Raf Vallone.

19:15: *Esta es mi gente*.20:25: *Mejorando lo presente*. Umorezko saio berria.20:58: *Teleberri*.22:00: *Zinema*.**Tres deseos.**

Zuz.: Marta Coolidge. Akt.: Patrick Swayze, Mary Elizabeth Mastrantonio, Joseph Mazzello.

00:20: *Zinema*.**Mi familia.**

Zuz.: Gregory Nava. Akt.: Esai Morales, Jimmy Smiths, Elpidia Carrillo. 1995.

02:25: *Lo que faltaba*.04:00: *Forum*.04:30: *Amaiera*.

ETB 1

06:30: *Bertatik Bertara*. Errepikapena.07:00: *Superbat*. Marrazki bizidunak eta telesailak. 'Pinguinoen mendekua', 'Ninja Dortokak', 'Hirukiak', 'Juanxo musker', 'Ipar Haizearen erronka', 'Tom eta Jerry' eta 'Bugs Bunny'.08:50: *Euskal Herritik*.09:25: *Raid Pyrenees Gasconne*. Dokumentala.10:05: *Hau Komeria*.10:25: *Sorgiñen Laratza*.11:40: *Bidaide*.13:00: *Iparraldearen orena*.13:05: *Dragoi basatia*.13:30: *Gaur egun*. Albistegia.14:05: *Otorduan Karlos Argiñano*. Untxia labean.14:20: *Txirrindularitza: Euskal Herriko Itzulia*. Laugarren etapa: Gas-teiz-Donetztebe.17:55: *Tex Averyren marrazki bizidunak*.18:05: *Bruno Gaztea*.18:25: *Gudakatua*, puntako eskuadroia.18:55: *G.I. Joe soldaduak*.19:10: *Parker Lewisek ez du sekula galtzen*.19:35: *KTM!*.20:10: *Otorduan Karlos Argiñano*. Errepikapena.20:28: *Gaur egun*.21:00: *Txirrindularitza: Euskal Herriko Itzulia*. Laburpena.21:20: *Bertatik Bertara*.21:55: *Goenkale*.22:40: *Sorgiñen Laratza*.00:00: *Euskadi Gaztea*. HF taldea.00:55: *Bakarrik*.02:40: *Euskaldunak New Yorken*. Dokumentala.03:40: *Haran eta gailur*.04:35: *Elkartasun bideak*.05:05: *Ikusgela*.05:35: *Osabideak*.05:45: *Basa-abereen bide-tik*.06:15: *Herri musika sorta*.

irratia ♦

Euskalerria Irratia. 08:30ean, *Bertatik bertara* informatiboa eskainiko dute. 10:00etan, *Zokobetailu* izeneko magazinean gauza interesgarri ugari eskainiko dituzte, besteak beste, hainbat herritako berri emango dute. 13:30ean, *Egunean eguneko* izeneko albistegia eskainiko dute, eta 15:00etan *Bazkalburukoa*. Gero, 18:00etatik aurrera, arratsaldeko magazina eskainiko dute. *Metropoli forala* da saioaren izena, eta bertan hainbat gonbidatu

izango da. Xabier Larraburuk errealitatearen ikuspegi surrealista emango du. Jasone Osoro idazle elgoibartarrak toki berezi baten deskribapena egingo du. Donostiako berri bitxiak kontatuko dituzte, eta telebista kritikoak ere bere kontakizuna egingo du. Ondoren, Bixente Serrano Izok Iruñeko historiari buruz hitz egingo du. Gainera, asteburura begira hiru liburu irakurtzeko gonbitea ere egingo diote entzuleari. Hau guztia eta gehiago ere izango da. Gaz-

teek ere euren saioa izango dute, baina hori gauean izango da: *Gazte Borrasten*. Agenda oparoa eta informazio ugari eskuratzeko modua izango dute gazteek.

Durango Irratia. Goizean, 09:30ean, *Egunon Durangaldea* izeneko saioan, Abadiño-ko Zelaietako auzokideek euren kexa azalduko dute. Arratsaldean, kirolen tartean, Roberto Eras txirrindularia eta Iker Casillas Real Madrileko atezaina izango dira.